

PASIONISTAK 50 URTE EUBAKO ORUEN

Urte mordo bat bete da Pasiotarrak gure ingurura, Durangaldeko mugara hurreratu zirenetik. Zornotzako Dudean, San Migelen, Orue etxaldea erosi eta komentu-seminarioa eraiki ebenetik 50 urte irago dira.

Aurreragotik ezagunak ei ziren gure artean, batez be garizuma aldiko mixiño-sermoietatik, euron janzkera umil, begirada apal eta berbakera ederragatik, Kristo gurutzatuaren nekaldia euskerazko jario aberats bezain dotorean entzuleei adierazoaz.

Euskaltzaleak izan ete ditugu pasionistok? Begira, iaz be mahai honetan bertontxe, Durangoko jesuiten 125 urte betetan zirela eta ni neuri egokitu jatan berba batzuk horretaz esatea eta beste batzuen artean hau aireratu neban: *nor naz ni inori euskaltzale karneta, izentaziñoa emoteko edo kentzeko?*

1962. uztaila edo izango zen, bagilla behar bada, eguna ez daukot gomutan baina asteguna zen eta arratsalde sargoria zela bai, auzoko Jabier Jayo, laguna gurera etorri zenean eta ni gure aitagaz etxeko sastaian nengoela Amatzako Jabierrek mu-na ganetik hau esan eustanean:

-bueno, Anton! Ni banajoiak, praille najoiak Gipuzkoako Gabiriara edo. Etxakiat non dagoen hori baina... bihar goiezak Aita Martzelegaz.

-bueno ba, ondo ibili, nik.

-nor dok Aita Martzel hori? gure aitak, -esaiok gurean be badirela mutillak eta Anton Mari be prest dagoela praille joateko.

-bai Anton, esango jeutsat?

Irailaren hiruan han doa Anton Mari Aita Martzelegaz lanbretta ganean jesarrita, Intxortako muga gaindituta Gabiriara. Egun berean mutil gaztetxoan aurrean ipoinen bat edo eta bertso bi kantau zituen Aita Martzelek. Hamaika urte neukozen baina Ijorretan bertsolariak entzunda nengoen orduko eta praille harek be antzera kantetan eban.

Gabiriara behin Aita Gabino Zugazaga Probintziala bisitan etorri zen eta *-zu nongoa zara?- Ijorretakoa. -ah, Monseñor Lauzirikaren herrikoa!* Ziztada emon eustan. Etxean edo entzuna, bizita, neukan horren ibileren, eraginen barri. Beste baten Monseñor Martin Elorza pasiotarra, Elgetako semea eta Peruko Moyobanban egoena etorri zen Gabiriara seminaristoi poza eta adorea, Kristok behar gintuela.... Baina han bateon batek: *hori gerra denboran Agirre lehendakariaren aitorlea izan zen eta gerra galduta gero hemendik alde egin beharra izan eban.* Gabirian bertan, domeka eguerdietan kanporako bozgoragailuetatik *zer duk nigarrez, zer duk hain hilun eskualdun gudari?, bakhearen urtsa, izu egin lo aita preso da, gu gira Euskadiko gazteri berria....*

Domeka arratsalde, batzuetan Ormaiztegira jaisten ginen eta 1962ko Santomasak edo izango ziren, Bertsolarien Txapelketa Donostian. Aita Jose Jabierrek transistore ñimiño bat, eta bakar-ka kantetako gaia Uztapidek eta Basarrik gogoan daukot eta euron erantzuna be bai: *Zein aukeratuko zeunke bertsolarion patroi?* Basarrik *San Frantzisko Asiskoa*, Uztapidek *Pedro Mari Otaño*. Nik horra orduko Otañoren *Limosnatxo bat eta Lagun-*

durikan danoi buruz kantetan nituen eta Uztapideren bertso hori entzundakoan zaletasuna ernetan edo hasita ete neukan...

Bazen han bertan euskeraz idazten ei eban beste praille bat, zeren gure bizimodua, seminarioko bizimodua arrunt erdelduna zen, baina Aita Gregoriok *Noni eta Mani* edo *Pernando Amezketarraren ipoinak* irakurten euskuzen lantzean behin, abesten berak erakusten euskunez behin Segura Irratira eroan gintuen abestera eta han Aita Martzelen bertso sorta bat abestu genduen gure aingeru ahotsez: *Patxi zergatik zabiz ain pozez beterik / Ama zertxo bat daukat ementxe gorderik / Ez dozu gura seme neuri esaterik / Ama pasionista joan gura dot nik.*

Hurrengo ikasturtetik aurrera batxilergoko urteak Orueko tontor ganean jo genduzen. Euban. Latin, musika, geografia eta matematikaz gain euskera be asignatura lez hor genduen gure programazioaren barruan. Aita Luis Mariren atzizkien apunteak, Euskal Aditza Joseba Intxausti frantziskotarrarena, bizkaieraz eta gipuzkeraz, hainbat irakurgai euskeraz. Eubako ikasleok geure klaseetako erredakzioetatik osotzen genduen **BIDEZ** euskal aldizkaritxoa, oso xumea eta apala berau baina bihozkadaz hornitua. BIDEZ hau zela-ta gabonetan Andima Ibinagabeitia edo Norbert Tauerren zorion agurra jaso ohi genduen edo Ekialdetik Gotzain frantziskotarren batena edo trukean Aita Santi karmeldarrak OLERTI liburuxka bidaltzen euskun aldizka. Ai gure poza eta zoramena! Zerbait sakona eta izendatua egiten genduela gengozen uste osoz, gure irakasle eta nagusien oneritziatz.

Aita San Paulo Gurutzekoaren egunez, apirilaren hondarrean garai haretan, Euskal Jaia eratu ohi zen Eubako komentuko zelai baten. Meza nagusiaren hurrengo euskal dantzak, bertsolariak, kantariak... euskal kantariak gitarraz lagundurik... hau da, aro barri bat sortu zen 1964-65tik aurrera eta pasiotarretan uhin eta haize freskagarri horrein barri jaso genduen.

Hamarkada horretan, eta Donostian jokatu zen beste Bertsolari txapelketa baten, hako Xalbadorri txistuak edo epaileei txis-

tuak jo eutsoezan haretan Aita Martzel orduan be mahaian izan zen. Handik lasterrera Xalbador handiari lehenengo omenaldia egin jakon Urretxuko pasiotarretan eta bertan Aita Jose Agustin Orbegozok hitzaldi-sermoia bertsoz egin eban Kristoren nekaldia eta Urepeleko bertsolari irainduaren arteko haria eta ilunpearen ostean argia ohi datorrela, gehienetan bederen jorratuz.

Bizitza ez da laudorioz betea baina! Euskaltzaindia eta euskera batuaren txanda zen eta nire errefentziarik ez neban ikusten hor. Nire irakasleak, nire ereduak... non ziren? Frantziskotarrek lideratzen eben bide hori edo bestela beste laiko batzuk: Mitxelenak, Txillardegik, Arestik, Saizarbitoriak, Kintanak, Urretabizkaiak..., bizkaierazko muga estu eta arkai-koan, atzerakoian gelditu ziren nik maisu-irakasletzat izan nituenak. Bai, nik neure neukon lubaki berean eta ni baino aitzinago ebizen gure arteko Joseba Zulaika –*Adanen poema amaigabea*- Rikardo Badiola eta Juanjo Zearreta *Euskal Hiztegi*az, Xabier Mendiguren eta beste.

Euskeraren giltza neure kautan askatzen oso lagungarri izan neban Euskaltzaindiak Bergaran egindako X. Biltzar nagusian Mikel Zarate zenak apal bezain gordin azaldu ebanean *dakigunetik eztaigunera, gu ez gagoz euskera batuaren kontra, baina geurea, bizkaiera galdu barik osotu daigun beharrezko dogun euskera hori*. Nire noraez eta ondoezarentzat Mikelen hitzok iparrorratza lez etozen eta konturatu eragin eusten, ideologiak ideologi, nire irakasle erakusleok euskeraren arazoa ondo eta zindo sustraiturik eukeela.

Garaiak eta aroak aldatu dira. Sermolari indartsuak urritu dira. Euskal sermolariak gitxitu jakuzen heinean Orueko pasiotarrak urtenbidea emoten ahalegindu dira euron esku daukien ondareari. Seminarioa denborakaz batera eraldatua izan da. Orain ez dago praillekirik baina eraikin berberori giza zerbitzuetara, euskal gizartearen eskakizunetara egokitu dabe. Ikas-tola bat martxan da. Ipoin liburu bat edo beste baino gehiago behar da gure euskal gizarte honetan eta pasioniston, Aita Fer-

min Iraolagoitiaren eraginez, bultzadaz eta kuraiez hor dago euskal editorial bat: IBAIZABAL.

Gutariko bakoitzak hamaika histori antzerako edo alderantzizko kontau leikez, agian. Nik neuk neure burua euskaltzaleztat, bertsozaletzat, abertzaletzat daukot. Musika gustuko dot. Horren karnetik inork ez deust emon. Eta ni nazen honen erroak eta sustraiak, bere akatsakaz, baina alde onak ugariagoak direlakoan nago, ni honen erroak Eubako Oruen dagoz eta honen damurik sekula ez dot izan.

Durangon, 2006-12-10

Antton Mari Aldekoa-Otalora Zamalloa.

Euskal Liburu eta Disko Azokaren egunetan.